



'Gure bide galduak' lanarekin irabazi du Donostia Antzerki saria Dejabu taldeak

KONPAINIA GIPUZKOARRAK 10.000 EURO ETA KEIXETAREN MARGOLAN BAT JASOKO DITU

Antzezlanaren berriz taularatuko dute hilaren 27an Victoria Eugenia, Antzerkiaren Nazioarteko Egunean

JUAN G. ANDRÉS

DONOSTIA. "Belaunaldi gazte batek gure gertuko historiak elkarlanean egindako hausnarketa" da *Gure bide galduak* Dejabu taldearen antzezlan. Hala uste du, behintzat, XII. Donostia Antzerki saria eman dion epaimahaia. Norika Chiapuso epaimahaiakeak atzo esan zuenez, "aurten kompetentzia handia egon da". "Oso zaila izan zen erabakia hartzea", gaineratu zuen Donostia Kulturako arte programatzaileak.

Betiko legez, euskaraz antzeztutako ikuskizun onena saritzen du Udalak. Iaz, bederatzik taldek aurkeztu zituzten beren lanak hiriko antzokietan (Pikor, Gaitzerdi, Txalo eta Tanttaka taldeek, besteak beste), bai-

na irabazlea Dejaburen antzezlan "biribila" izan da. Epaimahaiko bost kidek honako merituaz azpimarratu dute: "Jatorrizko lana izateaz gain, elkarlanean sorturikoa da".

Izan ere, lan kolektiboa da konpainiaren ezaugarri nagusia. Zuzendaritza denen artean egiten dute, baita testua ere. "Aktore sortzaileengan sinesten dugu", aitortu zuen Ainaro Gurrutxagak. Dejabu konpainiaren sortzaileetako batek. Bost aktoreak -Urko Redondo, Miren Alkalo, Maria Alonso, Iñigo Aranbarri eta Gurrutxaga bera- inprobisatzen hasi eta pixkanaka joaten dira testua osatzen. "Nahiko buruhausteak eman zigun, baina asko disfrutatu genuen", alipatu zuen Ainaro.

Urrian estreinatu zenetik 15 bat emanaldi egin dituzte eta oso "harre-rra ona" izan dute saio guztietan. Atzo adierazi zutenek, "kolektibitateari" buruz hitzegitea zen "hasierako apustua": talde ametsak, utopiak eta abar. Geroago, zenbait taldekide errenteriarrek direnez, istorioa herri horretan kokatzea erabaki zuten, 70. hamarkadaren azkenetan, Errenteria "Belfast txikia" goitizenezarekin ezaguna zenean: istilu politikoak eta langile borroka eguneroko gauzak ziren. "Batzuk garai horietan jaio ginen eta ezaguna egiten zaizkigu etxean oso presente egon direlako beti", azaldu zuen Gurrutxagak.

HISTORIA HURBILA Sinopsiak dioen moduan, *Gure bide galduak* lanak Euskal Herriko historia hurbila hartzen du alai-puntu -Franco hil ondorengo lehen urteak, hain zuzen ere-, eta baserri girotik hirira Magisteritza ikasketak egitera doan neska baten gogoetak ditu ardatz. "Utopia, amets eta desenkontu" buruzko

ipua da, "gure memorietatik berreskuraturako piezekin" sortutakoa eta "errealismo magikoz zipiritindutakoa".

Konpainiaren izen osoa Dejabu Panpin Laborategia da, eta azken lan honetan txotxongilorik ez dagoen arren, haien eragina somatzen da, mugimenduak, objektuen garrantzia eta espazioak sortzeko moduagatik, Urko Redondoren aburuz.

Epaimahaiaren ustez, "iraganaren interpretazio berezia" egiten du *Gure bide galduak* lanak. Hori ez ezik, eszenografia eta zuzendaritza ere nabarmentzekoak dira: "Harri-garia da ikustea nola lor daitezkeen hainbeste emozio hain objektu gutxi-

ekin. Elementu guztiak agerian dauden arren, emanaldiaren hasieratik, hauen erabilera sinbolikoa ezin hobea da. Eszenaratzeko ere "adimen handikoa da, planteamendu sinpletik konplexutasun semantikorantz doana, konponbide eta trantsizio eszeniko anitz sortuz". Azkenik, aktoreen lana eta Arantxa Vicedoren zuzeneko musika txalotzen ditu epaimahaia.

Sari gisa, taldeak 10.000 euro eta Txiki Agirre *Kelera* artistaren margolan bat jasoko ditu. Martxoaren 27an lana antzeztuko du Dejabu Victoria Eugenia antzokian, Antzerkiaren Nazioarteko Eguneko ekitaldian. Orduan hartuko ditu konpainiak 8.000 euro. Gaiantzeko 2.000 jasotzeko, 2015. urtea bukatu aurretik euskarazko antzerki lan berri bat eskaini beharko du Donostian. Gainera, ikuskizun hori prestatzeko (proba saioak egiteko eta abar) bi aste egin ahal izango dituzte Iparraldeko Harri Xurin dagoen produkzio gunean, gastu guztiak ordainduta.

"Belaunaldi gazte batek gure gertuko historiak elkarlanean egindako hausnarketa" da lana, epaimahaiaren ustez